



ZUMARRAGAKO

UDALA

ZUMARRAGA

(GIPUZKOA)

UDALBATZA 2023/07/18 / PLENO 18/07/2023

UDALBATZAK 2023KO UZTAILAREN 18AN EGINDAKO ANTOLAKUNTZARI BURUZKO UDALBATZAR BEREZIAREN AKTA

ACTA DE LA SESIÓN EXTRAORDINARIA DE ORGANIZACIÓN CELEBRADA POR EL AYUNTAMIENTO PLENO EL DÍA 18 DE JULIO DE 2023

Zumarragako Udaletxeko Bilkura-Aretoan, bi mila eta hogeita hiruko uztailaren 18an, arratsaldeko 18:00etan, Udalbatza bildu da, Mikel Serrano Aperribay Alkate jauna buru dela, lehen deialdian deitutako antolakuntzari buruzko udalbatzar bereziaren bilkura egiteko.

En el Salón de Plenos de la Casa Consistorial de Zumarraga, siendo las dieciocho horas del día dieciocho de julio de dos mil veintitrés, se reúne el Ayuntamiento Pleno bajo la presidencia del Sr. Alcalde, D. Mikel Serrano Aperribay, con el objeto de celebrar sesión extraordinaria de organización, previamente convocada al efecto, que tiene lugar en primera convocatoria.

Alkateordeak bertaratu dira: Rosa Maiza Garrido and., Arantzazu González San Vicente and., Nerea Errasti Valle and. eta José M^a Bermejo Vega jn.. Bai eta Iñaki Mendiluce Ochoa jn., Aritz Elgarresta Berasategi jn., Josu Aztiria Urtaran jn., Ainhoa Osinalde Zaldúa and., Irati Arratibel Glez. De Durana and., Belen Baztarrika Juanes and., Josu Idígoras Eguía jn. eta Daniel Jiménez Álvarez jn. Zinegotziak ere.

Asisten los Tenientes de Alcalde, Dña. Rosa Maiza Garrido, Dña. Aránzazu González San Vicente, Dña. Nerea Errasti Valle y D. José M^a Bermejo Vega, así como los Concejales, D. Iñaki Mendiluce Ochoa, D. Aritz Elgarresta Berasategi, D. Josu Aztiria Urtaran, Dña. Ainhoa Osinalde Zaldúa, Dña. Irati Arratibel Glez. De Durana, Dña. Belen Baztarrika Juanes, D. Josu Idígoras Eguía y D. Daniel Jiménez Álvarez.

Idazkaria da, Lucía Ocáriz Badiola andrea, eta Kontu-hartzailea, Agurtzane Basabe Arrizabalaga andrea.

Actúa de Secretaria, Dña. Lucía Ocáriz Badiola, y de Interventora, Dña. Agurtzane Basabe Arrizabalaga.

Alkate-Lehendakariak bilkura hasi du, eta ondorengo gai-zerrendako gaiak aztertu dira:

Abierta la sesión por la Presidencia, se trataron los asuntos del Orden del Día siguiente:

1. AURREKO BILERETAKO AKTAK
2. ALKATETZA-DEKRETUEN

1. ACTAS SESIONES ANTERIORES
2. DAR CUENTA

CSV:000.0080.AAAAPKX6.K.qdBq

Dokumentu honen osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/VerificadorDoc.aspx?idioma=eu-ES>

Compruebe la integridad y firma de este documento, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica.:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/VerificadorDoc.aspx>



ZUMARRAGAKO

UDALA

ZUMARRAGA

(GIPUZKOA)

UDALBATZA 2023/07/18 / PLENO 18/07/2023

BERRI EMATEA:

- a) 2023ko maiatzaren 15etik funtzionamendu Dekretuen zerrenda
 - b) Alkateordeen izendapena
 - c) Tokiko Gobernu Batzarreko kideen izendapena
 - d) Batzorde Informatzaileetako lehendakarien izendapena
 - e) Zinegotzi arduradunen izendapenak eta bere eskuetan aipatzen diren ahalmenak delegatzea
3. UDAL-TALDE POLITIKOEN ERAKETA ETA BOZERAMAILEEN IZENDAPENAK
 4. DEDIKAZIOA ESCLUSIBOA DUTEN KORPORAZIO KIDEEN ORDAINSARIAK ETA BESTE KIDEEN ETA TALDE POLITIKOEN DIRU IZENDAPENAK
 5. BATZORDE INFORMATZAILEEN ERAKETA ETA KONPOSAKETA
 6. KIDE ANITZEKO ORGANOETAN UDALEKO ORDEZKARI IZENDAPENA
 7. GALDERA-ERANTZUNAK

RESOLUCIONES DE ALCALDÍA:

- a) Relación Decretos funcionamiento desde el 15 de mayo de 2023.
 - b) Nombramiento Tenientes de Alcalde.
 - c) Nombramiento miembros Junta de Gobierno Local
 - d) Nombramiento Presidentes Comisiones Informativas
 - e) Nombramiento Concejales delegados de áreas departamentales y delegación de atribuciones
3. DAR CUENTA DE LA CONSTITUCIÓN DE LOS GRUPOS MUNICIPALES
 4. RETRIBUCIONES Y DEDICACIÓN DE MIEMBROS DE LA CORPORACIÓN CON DEDICACIÓN EXCLUSIVA O PARCIAL Y ASIGNACIONES RESTO DE MIEMBROS Y GRUPOS POLÍTICOS
 5. CREACIÓN Y COMPOSICIÓN DE LAS COMISIONES INFORMATIVAS
 6. NOMBRAMIENTO DE REPRESENTANTES DE LA CORPORACIÓN EN ÓRGANOS COLEGIADOS
 7. RUEGOS Y PREGUNTAS

CSV:000.0080.AAAAPKX6.K.qdBq

Dokumentu honen osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/VerificadorDoc.aspx?idioma=eu-ES>

Compruebe la integridad y firma de este documento, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica.:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/VerificadorDoc.aspx>



ZUMARRAGAKO

UDALA

ZUMARRAGA

(GIPUZKOA)

UDALBATZA 2023/07/18 / PLENO 18/07/2023

I.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK.- 2023/06/14an udala eratzeko egindako saioaren akta irakurri ondoren, onartu egin da eta Alkateak eta Udaleko Idazkariak elektronikoki sinatuko dute, eta Udalbatzaren Akta Liburura transkribatuko da, idatzita dagoen moduan.

II.- ALKATETZA-DEKRETUEN BERRI EMATEA

a) 2023ko maiatzaren 15etik funtzionamendu Dekretuen zerrenda

Alkateak emandako Dekretuen berri ematen da, I. Eranskinean eta II. Eranskinean jasota azaltzen den moduan.

Udal Batzarra jakinaren gainean gelditu da.

b) Alkateordeen izendapena

0596/ 2023 Dekretua
Udal Batzarra jakinaren gainean gelditu da.

c) Tokiko Gobernu Batzarreko kideen izendapena

0597/ 2023 Dekretua
Udal Batzarra jakinaren gainean gelditu da.

d) Batzorde Informatzaileetako lehendakarien izendapena

0598/ 2023 Dekretua
Udal Batzarra jakinaren gainean gelditu da.

I.- ACTAS SESIONES ANTERIORES.- Leída el Acta de la sesión de constitución del ayuntamiento del 14/06/2023, es aprobada y será firmada electrónicamente por el Sr. Alcalde y la Secretaria del Ayuntamiento y transcrita al Libro de Actas del Ayuntamiento Pleno en la forma que se halla redactada.

II.- DAR CUENTA RESOLUCIONES DE ALCALDÍA

a) Relación Decretos funcionamiento desde el 15 de mayo de 2023

Se da cuenta de los Decretos dictados por el Alcalde, cuya relación es tal y como se adjunta en los Anexo I. y Anexo II.

La Corporación, en su vista, se da por enterada.

b) Nombramiento Tenientes de Alcalde

Decreto 2023/ 0596
La Corporación, en su vista, se da por enterada.

c) Nombramiento miembros Junta de Gobierno Local

Decreto 2023/ 0597
La Corporación, en su vista, se da por enterada.

d) Nombramiento Presidentes Comisiones Informativas

Decreto 2023/ 0598
La Corporación, en su vista, se da por enterada.

CSV:000.0080.AAAAPKX6.K.qdBq

Dokumentu honen osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/VerificadorDoc.aspx?idioma=eu-ES>

Compruebe la integridad y firma de este documento, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica.:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/VerificadorDoc.aspx>



ZUMARRAGAKO

UDALA

ZUMARRAGA

(GIPUZKOA)

UDALBATZA 2023/07/18 / PLENO 18/07/2023

e) Zinegotzi arduradunen izendapenak eta bere eskuetan aipatzen diren ahalmenak delegatzea

0599/ 2023 Dekretua
Udal Batzarra jakinaren gainean gelditu da.

III.- UDAL-TALDE POLITIKOEN ERAKETA ETA BOZERAMAILEEN IZENDAPENAK.- Idazkariak emandako txostenaren berri eman da. Hona hemen edukia:

“Toki-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 54.1.a) artikuluan, gaikuntza nazionala duten tokiadministrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 173.1.a) artikuluan, eta Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren -ROF- 3.3) artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako egin da txosten hau.

AURREKARIAK

2023ko ekainaren 17an egindako osoko bilkuran karguak hartu zituzten zinegotziek udal-talde politikoak eratzeko eskatu dute, txosten honetako gogoeta juridikoen atalean azaldutako artikuluetan aurreikusitakoaren arabera:

II. OINARRI JURIDIKOAK

e) Nombramiento Concejales delegados de áreas departamentales y delegación de atribuciones

Decreto 2023/ 0599
La Corporación, en su vista, se da por enterada.

III.- DAR CUENTA DE LA CONSTITUCIÓN DE LOS GRUPOS MUNICIPALES.- Se da cuenta del informe emitido por la Secretaria del Ayuntamiento, cuyo contenido es como sigue:

“Se emite el presente informe a efectos de lo preceptuado por los artículos 54.1.a) del Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril, por el que se aprueba el texto refundido de las Disposiciones Legales Vigentes en materia de Régimen Local; 173.1.a) del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, y 3.3) del Real Decreto 128/2018, de 16 de marzo, por el que se regula el régimen jurídico de los funcionarios de Administración Local con habilitación de carácter nacional.

ANTECEDENTES

Los concejales que tomaron posesión de sus cargos en la sesión plenaria celebrada el día 17 de junio de 2023, han solicitado la constitución de grupos políticos municipales, de acuerdo con lo previsto por los artículos expuestos en el apartado de consideraciones jurídicas del presente informe:

II. FUNDAMENTOS JURÍDICOS

CSV:000.0080.AAAAPKX6.K.qdBq

Dokumentu honen osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/VerificadorDoc.aspx?idioma=eu-ES>

Compruebe la integridad y firma de este documento, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica.:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/VerificadorDoc.aspx>



ZUMARRAGAKO

UDALA

ZUMARRAGA

(GIPUZKOA)

UDALBATZA 2023/07/18 / PLENO 18/07/2023

LEHENENGOA.- Legeria aplikagarria

Aplikatu beharreko legeria honako hau da:

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarri buruzkoa.
- 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki Araubidearen arloan Indarrean dauden Lege Xedapenen Testu Bategina onartzen duena.
- 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duena.
- Zumarragako Udalaren Erregelamendu Organikoa, 2017ko martxoaren 9ko GAO n txertatua, 48. zk.

BIGARRENA.- Kotsiderazio juridikoak

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 73.3 artikulua araberak:

"Beren jardun korporatiboaren ondorioetarako, toki-korporazioetako kideak talde politikoetan eratuko dira, ezartzen diren moduan eta eskubide eta betebeharrekin, salbu eta hautatuak izan ziren hauteskunde-alderdia eratzeko duen talde politikoan sartzen ez direnak edo jatorrizko taldea uzten dutenak, horiek atxiki gabeko kideztat hartuko baitira."

2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak, II. kapituluaren arautzen ditu talde politikoak, eta honako hau xedatzen du:

PRIMERO.- Legislación aplicable

La legislación aplicable es la siguiente:

- Ley 7/1985, de 2 de abril, de las Bases de Régimen Local.
- Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril, por el que se aprueba el texto refundido de las Disposiciones Legales Vigentes en materia de Régimen Local.
- Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales.
- Reglamento Orgánico del Ayuntamiento de Zumarraga, inserto en el BOG del 9 de marzo de 2017, N° 48.

SEGUNDO.- Consideraciones Jurídicas

De conformidad con el artículo 73.3 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local:

"A efectos de su actuación corporativa, los miembros de las corporaciones locales se constituirán en grupos políticos, en la forma y con los derechos y las obligaciones que se establezcan con excepción de aquéllos que no se integren en el grupo político que constituya la formación electoral por la que fueron elegidos o que abandonen su grupo de procedencia, que tendrán la consideración de miembros no adscritos."

El Real Decreto 2568/1986, por el cual se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, regula en su Capítulo II los grupos políticos, disponiendo que:

CSV:000.0080.AAAAPKX6.K.qdBq

Dokumentu honen osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/VerificadorDoc.aspx?idioma=eu-ES>

Compruebe la integridad y firma de este documento, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica.:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/VerificadorDoc.aspx>



ZUMARRAGAKO

UDALA

ZUMARRAGA

(GIPUZKOA)

UDALBATZA 2023/07/18 / PLENO 18/07/2023

- Toki-korporazioetako kideak, beren jarduera korporatiboaren ondorioetarako, taldetan eratuko dira, eta ezin dira aldi berean talde bat baino gehiagokoak izan (23. art.).

- Talde politikoak Lehendakariari zuzendutako eta kide guztiek sinatutako idatzi baten bidez eratuko dira. Idatzi hori Korporazioko Idazkaritza Nagusian aurkeztuko da, Korporazioa eratu eta hurrengo bost egun balioduneko epean. Eratze-idazkian bertan, taldeko bozeramailearen izendapena jasoko da, eta ordezkioak ere izendatu ahal izango dira (24.art.).

- Talde politikoen eta horien kide eta bozeramaileen eraketaren berri emango dio Lehendakariak Osoko Bilkurari, aurreko artikuluan aurreikusitako epea bete ondoren egiten den lehenengo bilkuran (25. art.).

- Talde politikoei dagokie, bozeramailearen idazkiaren bitartez Lehendakariari zuzenduta eta Erregelamendu honetan kasu bakoitzerako aurreikusitako baldintzetan, Korporazioko kide anitzeko organo guztietan ordezkatu behar dituzten kideak izendatzea. (29. art.).

ONDORIOA

Azaldutako gogoeta juridikoen arabera, udal talde politikoak eratu behar dira. Hona hemen:

- Los miembros de las Corporaciones Locales, a efectos de su actuación corporativa, se constituirán en grupos y no se puede pertenecer simultáneamente a más de un grupo (art. 23).

- Los grupos políticos se constituirán mediante escrito dirigido al Presidente y suscrito por todos sus integrantes, que se presentará en Secretaría General de la Corporación dentro del plazo de los cinco días hábiles siguientes a la constitución de la Corporación. En el mismo escrito de constitución se hará constar la designación de Portavoz del grupo, pudiendo designarse también suplentes (art. 24).

- De la constitución de los grupos políticos y de sus integrantes y portavoces, el Presidente dará cuenta al Pleno en la primera sesión que celebre después de cumplirse el plazo previsto en el artículo anterior (art. 25).

- Corresponde a los grupos políticos designar, mediando escrito de su Portavoz dirigido al Presidente y en los términos previstos en cada caso en el presente Reglamento, a aquellos de sus componentes que deban representarlos en todos los órganos colegiados integrados por miembros de la Corporación pertenecientes a los varios grupos (art. 29).

CONCLUSIÓN

De acuerdo con las consideraciones jurídicas expuestas, procede la constitución de grupos políticos municipales que se señalan a continuación:

CSV:000.0080.AAAAPKX6.K.qdBq

Dokumentu honen osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/VerificadorDoc.aspx?idioma=eu-ES>

Compruebe la integridad y firma de este documento, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica.:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/VerificadorDoc.aspx>



ZUMARRAGAKO

UDALA

ZUMARRAGA

(GIPUZKOA)

UDALBATZA 2023/07/18 / PLENO 18/07/2023

Udaleko talde politikoa eta bozeramailea

SOCIALISTAS VASCOS – EUSKAL SOZIALISTAK UADL TALDEA:

Titularra: Rosa Maiza Garrido
Ordezkoa: Nerea Errasti Valle

EH BILDU UDAL TALDEA:

Titularra: Aritz Elgarresta Berasategi
Ordezkoa: Josu Aztiria Urtaran

EAJ-PNV UDAL TALDEA:

Titularra: Josu Idígoras Eguía
Ordezkoa: Daniel Jiménez Álvarez”

Udalaren abenduaren 15eko 20/2006 Legearen 76.4 artikuluan, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak onartutako Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 25. artikuluan eta Zumarragako Udalaren Erregelamendu Organikoan xedatutakoaren arabera, Udaltzak, Talde Politikoak izen, osaera eta bozeramaileen izendapen honekin eratu direla jakinararen gainean gelditu da:

SOCIALISTAS VASCOS – EUSKAL SOZIALISTAK UDAL TALDEA

Osaera:

1. MIKEL SERRANO APERRIBAY
2. ROSA MAIZA GARRIDO
3. JOSE MARÍA BERMEJO VEGA
4. ARANZAZU GONZALEZ SAN VICENTE
5. NEREA ERRASTI VALLE
6. IÑAKI MENDILUCE OCHOA

Bozeramailea: Rosa Maiza Garrido
Ordezkoa: Nerea Errasti Valle

Grupo político municipal y Portavoz

GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTAS VASCOS - EUSKAL SOZIALISTAK:

Titular: Rosa Maiza Garrido
Suplente: Nerea Errasti Valle

GRUPO MUNICIPAL EH BILDU:

Titular: Aritz Elgarresta Berasategi
Suplente: Josu Aztiria Urtaran

GRUPO MUNICIPAL EAJ-PNV:

Titular: Josu Idígoras Eguía
Suplente: Daniel Jiménez Álvarez”

En virtud de lo dispuesto en el artículo 76.4 de la Ley 20/2006, de 15 de diciembre, municipal, el artículo 25 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, aprobado por RD 2568/1986, de 28 de noviembre, y el Reglamento Orgánico del Ayuntamiento de Zumarraga, la Corporación se da por enterada de que han quedado constituidos los Grupos Políticos con la siguiente denominación, composición y designación de sus Portavoces:

GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTAS VASCOS - EUSKAL SOZIALISTAK

Composición:

1. MIKEL SERRANO APERRIBAY
2. ROSA MAIZA GARRIDO
3. JOSE MARÍA BERMEJO VEGA
4. ARANZAZU GONZALEZ SAN VICENTE
5. NEREA ERRASTI VALLE
6. IÑAKI MENDILUCE OCHOA

Portavoz: Rosa Maiza Garrido
Suplente: Nerea Errasti Valle

CSV:000.0080.AAAAPKX6.K.qdBq

Dokumentu honen osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/VerificadorDoc.aspx?idioma=eu-ES>

Compruebe la integridad y firma de este documento, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica.:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/VerificadorDoc.aspx>



ZUMARRAGAKO

UDALA

ZUMARRAGA

(GIPUZKOA)

UDALBATZA 2023/07/18 / PLENO 18/07/2023

EH BILDU UDAL TALDEA

Osaera:

1. ARITZ ELGARRESTA BERASATEGI
2. JOSU AZTIRIA URTARAN
3. AINHOA OSINALDE ZALDUA
4. IRATI ARRATIBEL GONZALEZ DE DURANA
5. BELEN BAZTARRIKA JUANES

Bozeramailea: Aritz Elgarresta Berasategi

Ordezkoa: Josu Aztiria Urtaran

EAJ-PNV UDAL TALDEA

Osaera:

1. JOSU IDIGORAS EGIA
2. DANIEL JIMENEZ ALVAREZ

Bozeramailea: Josu Idigoras Eguía

Ordezkoa: Daniel Jiménez Álvarez

GRUPO MUNICIPAL EH BILDU

Composición:

1. ARITZ ELGARRESTA BERASATEGI
2. JOSU AZTIRIA URTARAN
3. AINHOA OSINALDE ZALDUA
4. IRATI ARRATIBEL GONZALEZ DE DURANA
5. BELEN BAZTARRIKA JUANES

Portavoz: Aritz Elgarresta Berasategi

Suplente: Josu Aztiria Urtaran

GRUPO MUNICIPAL EAJ-PNV

Composición:

1. JOSU IDÍGORAS EGUÍA
2. DANIEL JIMENEZ ALVAREZ

Portavoz: Josu Idígoras Eguía

Suplente: Daniel Jiménez Álvarez

IV.- DEDIKAZIOA ESKLUSIBOA DUTEN KORPORAZIO KIDEEN ORDAINSARIAK ETA BESTE KIDEEN ETA TALDE POLITIKOEN DIRU IZENDAPENAK.-

Korporazioko Alkate-udalburuak alkatetzaren proposamenaren berri eman da. Proposamen horren arabera, korporazioko kideen ordainsariak eta dedikazioak esleitzen zaizkie arduraldi eskusiboa eta partziala dutenei, eta udal-talde politikoei, informazio-batzordeetako presidenteei eta arduraldirik gabeko korporaziokideei.

2023ko maiatzaren 28ko Toki Hauteskundeen ondoriozko udal berria eratu ondoren, ezinbestekoa da korporazio honetako kide politikoen dedikazio-araubidea ezartzea, batez ere Alkatetzak dekretuen bidez egindako

IV.- RETRIBUCIONES Y DEDICACIÓN DE MIEMBROS DE LA CORPORACIÓN CON DEDICACIÓN EXCLUSIVA O PARCIAL Y ASIGNACIONES RESTO DE MIEMBROS Y GRUPOS POLÍTICOS.-

Se da cuenta de la propuesta de Alcaldía de atribución de retribuciones y dedicaciones de miembros de la Corporación con dedicación exclusiva y parcial y las asignaciones a los grupos políticos municipales y Presidentes de Comisiones informativas y asistencias de los corporativos sin dedicación.

Una vez constituido el nuevo Ayuntamiento resultante de las Elecciones Locales de fecha 28 de mayo de 2023, resulta indispensable proceder al establecimiento del régimen de dedicación de los miembros políticos

CSV:000.0080.AAAAPKX6.K.qdBq

Dokumentu honen osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/VerificadorDoc.aspx?idioma=eu-ES>

Compruebe la integridad y firma de este documento, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica.:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/VerificadorDoc.aspx>



ZUMARRAGAKO

UDALA

—
ZUMARRAGA

(GIPUZKOA)

UDALBATZA 2023/07/18 / PLENO 18/07/2023

eskuordetzeak kontuan hartuta.

Toki-Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75. artikuluan eta apirilaren 21eko 11/1999 Legearen idazkera berria ezarritakoarekin bat etorritik, eta azaroaren 28ko 2568/1986 Dekretuak onartutako Toki-Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Araudiaren 13. artikuluekin bat etorritik, toki-korporazioetako kideek eskubidea dute beren karguan jarduteagatik ordainsariak jasotzeko, arduraldi eskusiboan edo partzialen dihardutenean, bai eta kalte-ordainak jasotzeko ere, korporazioko osoko bilkurak ezartzen dituen zenbatekoan eta baldintzetan, kide diren kide anitzeko organoen bilkuretara joateagatik.

Azaroaren 28ko 2568/1986 Dekretuaren bidez onartutako Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 23. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, Udal Talde Politikoek kargua betetzeko baliabide materialen eta giza baliabideen gutxienezko azpiegitura bat izateko eskubidea dute. Hori dela eta, Udal honen aukera funtzionalak ikusita, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 73.3 artikuluan apirilaren 21eko 11/1999 Legeak lege horri emandako idazketa berria xedatutakoa kontuan hartuta, hileko zenbateko ekonomiko bat

de esta Corporación, especialmente teniendo en cuenta las delegaciones efectuadas por la Alcaldía mediante los Decretos.

Considerando que de conformidad con lo dispuesto por el artículo 75 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, en la nueva redacción, dada a la misma por la Ley 11/1999, de 21 de abril, en concordancia con el artículo 13 del Reglamento de Organización, funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, aprobado por Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, los miembros de las Corporaciones Locales tienen derecho a percibir retribuciones por el ejercicio de su cargo cuando lo desempeñen en régimen de dedicación exclusiva o parcial, así como a percibir indemnizaciones en la cuantía y condiciones que establezca el Pleno de la Corporación, en concepto de asistencias por la concurrencia efectiva a las sesiones de los órganos colegiados de los cuales formen parte.

Considerando que de conformidad con lo dispuesto por los artículos 23 y siguientes del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, aprobado por Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, los Grupos Políticos Municipales tienen derecho a disponer de una infraestructura mínima de medios materiales y personales para el ejercicio del cargo, lo que, dadas las posibilidades funcionales de este Ayuntamiento y a la vista de lo que dispone en artículo 73.3 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, en la nueva

CSV:000.0080.AAAAPKX6.K.qdBq

Dokumentu honen osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/VerificadorDoc.aspx?idioma=eu-ES>

Compruebe la integridad y firma de este documento, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica.:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/VerificadorDoc.aspx>



ZUMARRAGAKO

UDALA

ZUMARRAGA

(GIPUZKOA)

UDALBATZA 2023/07/18 / PLENO 18/07/2023

esleitzeko beharra gomendatzen da. Zenbateko horrek talde guztientzat berdina den osagai finko bat eta kide kopuruaren arabeko beste osagai aldakor bat izango ditu, eta Talde Politikoek ezin izango dute erabili Udalaren zerbitzurako edozein motatako langileen ordainsariak ordaintzeko, ez eta ondare-izaerako aktibo finkoak izan daitezkeen ondasunak eskuratzeko ere.

Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 23.4 artikulua Osoko Bilkurari esleitzen dio, lehendakariak proposatuta, helburu horretarako aurrekontuko kreditu orokorren barruan, arduraldi eskusiboan eta partzialean eta, beraz, ordainsariarekin bete ahal izango diren karguak zehaztea, bai eta zenbatekoa informazio-batzordeetako presidentek beren gain hartutako erantzukizun-mailaren arabera finkatzea ere.

Kontuan hartuta:

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeak ezartzen dute toki-korporazioetako kideek eskubidea dutela beren karguan emandako denboraren arabera dagozkien diru-kopuruak jasotzeko.

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 75.1 artikulua eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 32. artikulua xedatzen dute

redacción dada al mismo por la Ley 11/1999, de 21 de abril, aconseja la necesidad de asignar una cuantía económica de carácter mensual, que contendrá un componente fijo idéntico para todos los grupos y otro variable en función de su número de miembros, que no se podrá destinar por los Grupos al pago de remuneraciones de personal de cualquier tipo al servicio del Ayuntamiento, ni a la adquisición de bienes que puedan constituir activos fijos de carácter patrimonial.

Considerando que el artículo 23.4 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, aprobado por Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, atribuye al Pleno, a propuesta de su Presidente, la determinación, dentro de los créditos globales del Presupuesto a tal fin, de los cargos que podrán desempeñarse en régimen de dedicación exclusiva y parcial y por tanto con retribución, así como fijar la cuantía en atención al grado de responsabilidad asumido por los Presidentes de las comisiones informativas.

Considerando:

- Que la Ley de Bases de Régimen Local y la Ley de Instituciones Locales de Euskadi establecen que los/as miembros de las Corporaciones locales tienen derecho a las percepciones económicas correspondientes en función de la dedicación que destinen al ejercicio de su cargo.

- Que el artículo 75.1 de la Ley de Bases de Régimen Local y el artículo 32 de la Ley de Instituciones Locales de Euskadi disponen que las retribuciones

CSV:000.0080.AAAAPKX6.K.qdBq

Dokumentu honen osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/VerificadorDoc.aspx?idioma=eu-ES>

Compruebe la integridad y firma de este documento, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica.:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/VerificadorDoc.aspx>



ZUMARRAGAKO

UDALA

ZUMARRAGA

(GIPUZKOA)

UDALBATZA 2023/07/18 / PLENO 18/07/2023

ordainsariak nahitaezkoak direla beren kargua arduraldi partzialarekin edo eskusiboarekin betetzen duten zinegotzientzat.

Eztabaida hasi ondoren, Aritz Elgarrestak, EH Bilduren udal taldeko bozeramaileak, hartu du hitza, eta adierazi du bere taldeak bi zuzenketa aurkeztu dizkiola Alkatetzaren proposamenari.

Bere esku-hartzea akta honetako audioan grabatuta geratzen da.

Jarraian, alkate jaunak hartu du hitza, eta adierazi du egia dela Udal Erregelamendu Organikoak ez duela berriaz arautzen gai hori, baina kontuan hartu behar dugula azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretua, Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duena.

Bozkatzeko sistema honako hau izango dela adierazi du: Lehenik eta behin, zuzenketak bozkatuko dira, eta, azkenean, testu osoa bozkatuko da. Testu horren ordean, Alkatetzaren proposamenari dagozkion alderdiak aurkeztuko dira, hala badagokio, aurrera egiten duten zuzenketekin.

Bere esku-hartzea akta honetako audioan grabatuta geratzen da.

Josu Idigoras zinegotziak, EAJ-PNV taldeko bozeramaileak, hartu du hitza.

son preceptivas para aquellos concejales o concejales que desempeñen su cargo con dedicación parcial o exclusiva.

Abierto el debate, toma la palabra Aritz Elgarresta, portavoz del grupo municipal de EH-BILDU, señalando que su grupo ha presentado dos enmiendas a la propuesta de Alcaldía.

Su intervención queda grabada en el audio que forma parte de la presente Acta.

Seguidamente, toma la palabra el Sr. Alcalde señalando que si bien es cierto que el Reglamento Orgánico Municipal no regula expresamente esta cuestión, debemos tener en cuenta el RD 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales

Indica que el sistema de votación será el siguiente. Se votarán primeramente las enmiendas, pasando finalmente a votar el texto íntegro que resultará de entender sustituidas las partes correspondientes a la propuesta de Alcaldía por las enmiendas que en su caso prosperen.

Su intervención queda grabada en el audio que forma parte de la presente Acta.

Toma la palabra el corporativo Josu Idigoras, portavoz del grupo municipal de EAJ-PNV.

CSV:000.0080.AAAAPKX6.K.qdBq

Dokumentu honen osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/VerificadorDoc.aspx?idioma=eu-ES>

Compruebe la integridad y firma de este documento, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica.:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/VerificadorDoc.aspx>



ZUMARRAGAKO

UDALA

ZUMARRAGA

(GIPUZKOA)

UDALBATZA 2023/07/18 / PLENO 18/07/2023

Bere esku-hartzea akta honetako audioan grabatuta geratzen da.

EH-BILDU tolde politikoak aurkeztutako emendakinak:

1. Txostenaren Zazpigarren puntua honela berridaztea: "Liberaziorik gabeko korporazioko kideen aldeko esleipen hauek ezartzea, informazio-batzordeetako lehendakartzatik eratorritako erantzukizunengatik: 0 €/hilean.

Justifikazioa: Udal-gobernuak hiru liberazio oso zehaztu ditu lanaldi osoz, legediak eta EUDELen irizpideak zehaztutako gehieneko dedikazioaren barnean. Hiru liberazio izanik eta lan-eremu desberdinen ardurua politikoa izanik, EH Bilduren ustez, Informazio batzordeetako lehendakariak liberatuak dauden zinegotziak izan beharko lukete, antolaketaren eraginkortasuna eta gastu publikoaren zehaztearen ikuspegitik. Beraz, lehendakaria zein liberatutako nortzuk izan behar duten zehaztea ez dagokigunez eta lehendakaria liberatu bat izan behar duela uste dugunez, lehendakaria izateagatik dietarik ez jasotzea proposatzen dugu".

Udalbatzarrak, aldeko 5 botoekin (5 EH-BILDU) eta kontrako 8 botoekin (6 EUSKAL SOZIALISTAK UDAL TALDEA eta 2 EAJ-PNV) zuzenketa baztertzea erabaki du.

2. Txostenaren seigarren puntua honela berridaztea: "Seigarrena. Udal Talde Politikoen alde hileko dirulaguntza bat

Su intervención queda grabada en el audio que forma parte de la presente Acta.

Enmiendas presentada por el grupo municipal de EH-BILDU:

1ª. Reformulación del punto séptimo del informe como "Establecer las siguientes asignaciones a favor de los miembros de la Corporación no liberada por responsabilidades derivadas de la presidencia de las Comisiones Informativas: 0 €/ año.

Justificación: El gobierno municipal ha concretado tres liberaciones completas a tiempo completo, dentro de la dedicación máxima definida por la legislación y el criterio de EUDEL. Con tres liberaciones y la responsabilidad política de los distintos ámbitos, EH Bildu considera que los presidentes de las Comisiones Informativas deberían ser concejales liberados desde el punto de vista de la eficiencia organizativa y la prudencia en el gasto público. Por lo tanto, como no nos corresponde determinar qué liberados deben ser el Presidente y creemos que el Presidente debe ser un liberado, proponemos que no reciban dieta por ser Presidente".

La Corporación, con 5 votos a favor (5 EH-BILDU) y 8 votos en contra (6 GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTAS VASCOS - EUSKAL SOZIALISTAK y 2 EAJ-PNV) acuerda rechazar la enmienda.

2ª. Reformulación del punto sexto del informe como "Sexto. Establecer una subvención mensual a favor de los

CSV:000.0080.AAAAPKX6.K.qdBq

Dokumentu honen osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/VerificadorDoc.aspx?idioma=eu-ES>

Compruebe la integridad y firma de este documento, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica.:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/VerificadorDoc.aspx>



ZUMARRAGAKO

UDALA

ZUMARRAGA

(GIPUZKOA)

UDALBATZA 2023/07/18 / PLENO 18/07/2023

ezartzea, beren eginkizunak betetzean egindako gastuetarako, honako zenbateko hauekin:

- A.- Udal-taldea: 500,00 €/ hileko
- B.- Zinegotzia: 150,00 €/ hileko"

Hau da, "C.- Alkateordea: 175,00 € hileko" kentzea.

Justifikazioa: EUDELe ezarritako irizpideen arabera Udal Taldeen asignazioak bi irizpideren arabera egin behar dira: a) Udal Taldeko asignazioa; b) Zinegotziko bakoitzako kopurua. Ez da irizpideetan Alkateordea izateagatik diru-esleipenik ageri, beraz EUDEL irizpideen kontra doa. Gainera, "Alkateordearen" asignazioa eranstea Udal Taldeen diru-banaketa ekitatibotasunaren kontra doa, izan ere, Udal Gobernuaren planteamenduarekin Udal Gobernuan dagoen alderdiak abantaila izango luke eta proportzioan diru-gehiago erdietsi".

Udalbatzarrak, aldeko 5 botorekin (5 EH-BILDU) eta kontrako 8 botorekin (6 EUSKAL SOZIALISTAK UDAL TALDEA eta 2 EAJ-PNV) zuzenketa baztertzea erabaki du.

Ondoren, **Alkatezaren proposamena** bozkatzen da, Alkateordeari dagokion kontzeptua talderako esleipen orokorretik kenduz eta zortzigarren atalean jasoz.

Udalbatzarrak, aldeko 8 botorekin (6 EUSKAL SOZIALISTAK UDAL TALDEA eta 2 EAJ-PNV) eta kontrako 5ekin (5 EH-BILDU), jarraian jasotzen den proposamena onartzea

Grupos Políticos Municipales para los gastos realizados en el ejercicio de sus funciones, por las siguientes cuantías:

- A.- Grupo municipal: 500,00 €/ mes
- B.- Concejales: 150,00 €/ mes

"Es decir, eliminar "C.- Teniente de Alcalde: 175,00 €/ mes".

Justificación: Según los criterios establecidos por EUDEL, las asignaciones de los Grupos Municipales deben realizarse en función de dos criterios: a) Asignación del Grupo Municipal; b) Número por cada concejal. No consta en los criterios ninguna asignación económica por ser Teniente de Alcalde, por lo que EUDEL va en contra de los criterios. Además, añadir la asignación del "Teniente de Alcalde" supone que el reparto económico de las Grupos Municipales va en contra de la equidad, ya que con el planteamiento del Gobierno Municipal el partido en el Gobierno Municipal tendría ventaja y proporcionalmente obtendría más".

La Corporación, con 5 votos a favor (5 EH-BILDU) y 8 votos en contra (6 GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTAS VASCOS - EUSKAL SOZIALISTAK y 2 EAJ-PNV) acuerda rechazar la enmienda.

A continuación, se pasa a votar la **propuesta de Alcaldía** eliminando el concepto de TA de la asignación global al grupo y recogiendo en el apartado octavo.

La Corporación con 8 votos a favor (6 GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTAS VASCOS - EUSKAL SOZIALISTAK y 2 EAJ-PNV) y 5 en contra (5 EH-BILDU) acuerda aprobar la

CSV:000.0080.AAAAPKX6.K.qdBq

Dokumentu honen osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/VerificadorDoc.aspx?idioma=eu-ES>

Compruebe la integridad y firma de este documento, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica.:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/VerificadorDoc.aspx>



ZUMARRAGAKO

UDALA

ZUMARRAGA

(GIPUZKOA)

UDALBATZA 2023/07/18 / PLENO 18/07/2023

erabaki du:

Lehenengoa. Jarraian aipatzen diren korporazioko kideek jarraian zehazten den dedikazio-araubidean beteko dituzte beren karguak:

Izena

Dedikazioa

Mikel Serrano Aperribay

Esklusiboa

Rosa Maiza Garrido

Esklusiboa

Arantxa González San

Vicente Esklusiboa

Ainhoa Osinalde Zaldúa

Partziala

propuesta que se recoge a continuación:

Primero. Establecer que los miembros de la Corporación que a continuación se relacionan ejercerán sus cargos en el régimen de dedicación que se detalla:

Izena

Dedikazioa

Mikel Serrano Aperribay

Esklusiboa

Rosa Maiza Garrido

Esklusiboa

Arantxa González San Vicente

Esklusiboa

Ainhoa Osinalde Zaldúa

Partziala

Bigarrena. Bere eginkizunak arduraldi eskusiboan beteko dituen Udaltzako alkate-udalburuaren alde ondoren adierazten den ordainsaria ezartzea. Ordainsari hori hamalau ordainsaritan jasoko da, urteko hamabi hilabetsaritan, eta ekaineko eta abenduko gainerako biak, eta alta emango zaio Gizarte Segurantzako araubide orokorrean.

Hileko ordainsari gordina 5.009,72€

Ordainsari horiek jasotzea bateraezina izango da era guztietako ordainsari-jardueretan aritzearekin eta administrazio publikoen eta haien mendeko erakunde, organismo eta enpresen aurrekontuen kargurako beste edozein ordainsarirekin, bileretara

Segundo. Establecer a favor del Alcalde-Presidente de la Corporación que desempeñará sus funciones en régimen de dedicación exclusiva, la retribución que a continuación se relaciona, que se percibirá en catorce pagas, doce correspondientes a las diferentes mensualidades del año y las dos restantes correspondientes a las mensualidades de junio y diciembre, y darle de alta en el régimen general de la Seguridad Social.

Retribución bruta mensual 5.009,72€

La percepción de estas retribuciones será incompatible con el ejercicio de todo tipo de actividades retributivas y con la de cualquier otra retribución con cargo a los presupuestos de las Administraciones Públicas y de los Entes, Organismos y Empresas de ellas

CSV:000.0080.AAAAPKX6.K.qdBq

Dokumentu honen osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/VerificadorDoc.aspx?idioma=eu-ES>

Compruebe la integridad y firma de este documento, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica.:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/VerificadorDoc.aspx>



ZUMARRAGAKO

UDALA

ZUMARRAGA

(GIPUZKOA)

UDALBATZA 2023/07/18 / PLENO 18/07/2023

joateagatik legozkiekeen dieta eta kalte-ordainei kalterik egin gabe. Zortzigarren zenbakian ezartzen diren kalte-ordaineekin ere bateraezina izango da.

Hirugarrena. Bere eginkizunak arduraldi eskusiboan beteko dituen lehen alkateordearen alde ondoren adierazten den ordainsaria ezartzea. Ordainsari hori hamalau ordainsaritan jasoko da, urteko hamabi hilabete-saritan, eta ekainari eta abenduari dagozkien gainerako biak, eta alta emango zaio Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean.

Korporatiboa: Rosa Maiza Garrido

Kargua: Lehen AO, honako arlo hauetako zinegotzi delegatua:

- Administrazio Publikoa eta Herritarren Partaidetza (administrazio-zerbitzu orokorrak: giza baliabideak, artxiboa, informatika, HAZ), Antolakuntzaren arloan.

- Ekonomi Sustapena, Toki Garapena eta Berrikuntza Herritarren arloan.

- Trantsizio energetiko eta jasangarritasuna, ur gaiak izan ezik, Lurralderen arloan.

Hileko ordainsari gordina: 4.508,61€

Dedikazio hori akordioak hartzen denetik gauzatuko da.

dependientes, sin perjuicio de las dietas e indemnizaciones que les pueda corresponder por su asistencia a reuniones. También será incompatible con las indemnizaciones que se establezcan en el apartado octavo.

Tercero. Establecer a favor de la Primer Teniente de Alcalde que desempeñará sus funciones en régimen de dedicación exclusiva, la retribución que a continuación se relaciona, que se percibirá en catorce pagas, doce correspondientes a las diferentes mensualidades del año y las dos restantes correspondientes a las mensualidades de junio y diciembre, y darle de alta en el régimen general de la Seguridad Social.

Corporativo: Rosa Maiza Garrido

Cargo: Primer TA, concejala delegada de las siguientes áreas:

- Administración Pública y Participación Ciudadana (servicios administrativos generales: recursos humanos, archivo, informática, SAC) dentro del área de Organización.

- Promoción Económica, Desarrollo Local e Innovación dentro del área de Ciudadanía.

- Transición energética y sostenibilidad, a excepción de asuntos en materia de aguas dentro del área de Territorio.

Retribución mensual bruta: 4.508,61€

Esta dedicación se hará efectiva a partir de la adopción del acuerdo.

CSV:000.0080.AAAAPKX6.K.qdBq

Dokumentu honen osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/VerificadorDoc.aspx?idioma=eu-ES>

Compruebe la integridad y firma de este documento, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica.:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/VerificadorDoc.aspx>



ZUMARRAGAKO

UDALA

ZUMARRAGA

(GIPUZKOA)

UDALBATZA 2023/07/18 / PLENO 18/07/2023

Ordainsari horiek jasotzea bateraezina izango da era guztietako ordainsari-jardueretan aritzearekin eta administrazio publikoen eta haien mendeko erakunde, organismo eta enpresen aurrekontuen kargurako beste edozein ordainsarirekin, bileretara joateagatik legozkiekeen dieta eta kalte-ordainei kalterik egin gabe. Zortzigarren zenbakian ezartzen diren kalte-ordaineekin ere bateraezina izango da.

Laugarrena. Bere eginkizunak arduraldi eskusiboan beteko dituen bigarren alkateordearen alde ondoren adierazten den ordainsaria ezartzea. Ordainsari hori hamalau ordainsaritan jasoko da, urteko hamabi hilabete-saritan, eta ekainari eta abenduari dagozkien gainerako biak, eta alta emango zaio Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean.

Korporatiboa: Aránzazu González San Vicente

Kargua: Bigarren AO, honako arlo hauetako zinegotzi delegatua:

Gizarte zerbitzuak eta berdintasuna.

Hileko ordainsari gordina: 2.554,95€

La percepción de estas retribuciones será incompatible con el ejercicio de todo tipo de actividades retributivas y con la de cualquier otra retribución con cargo a los presupuestos de las Administraciones Públicas y de los Entes, Organismos y Empresas de ellas dependientes, sin perjuicio de las dietas e indemnizaciones que les pueda corresponder por su asistencia a reuniones. También será incompatible con las indemnizaciones que se establezcan en el apartado octavo.

